

**PREMIA saileko Zirkularra**  
**ESKOLA 2.0 PROGRAMA**  
**ITUNPEKO IKASTETXEAK 2012-13 ikasturtea**

**ESKOLA 2.0 PROGRAMAREN ORDENAGAILUAK IKASLEENTZAT:**

**Lehen Hezkuntza:**

Ikastetxeetako matrikula-epea ixten denean eta datuak behin betikoak direnean, ikastetxeak eskatu beharrik izan gabe, automatikoki ekipo-kopurua egokituko da 5. eta 6. mailako ikasle-kopuruarekin, irakaskuntza ereduaren arabera komunikazio-hizkuntzarekin bat: gaztelania A eredurako eta euskara B eta D ereduarentzako.

Horren berri aldeztatik jakinaraziko zaie ikastetxeei, posta elektronikoki bidez, eta urriaren bukaerako ikasle guztiek dagokion ekipoa izatea espero dugu.

Ordutik aurrera, bi esku-hartze gehiago egingo dira ikasturtean zehar, matrikula gorabeherei edo aldaketei erantzuteko. Irailaren 24tik aurrera gerta daitekeen edozein matrikula-aldaketa Ordezkaritzan jakinaraziko da betiere, dagokion ekipamenduz bitzuan.

**OHARRAK:**

1. Soberako ekipoak kendu behar direnean, jasotzeaz arduratzen den enpresari eman behar zaizkio, garraio-poltsa eta bi kargatzaileak barne; sagua ere bai, baldin eta ekipoa zuria eta berdea bada (berde-beltza direnak ez zuten sagu gehigarririk).
2. Programa honen bidez ematen diren ekipoak Hezkuntza Sailaren jabetzakoak dira eta ikastetxeen artean banatzen dira, zain eta erabil ditzaten definitutako helburuaren arabera. Ekipoa ez dago ikasleari lotuta, beraz etapaz edo ikastetxez aldatzen bada, ez du ekipoa eramango. Ekipoa jatorrizko ikastetxean geratuko da eta helburuko zentroan beste bat jasoko du.

**Bigarren Hezkuntza:**

Lehen Hezkuntzan jarraitutako prozeduraren antzera, matrikula-epea ixtearekin bat, azkenean datu zehatzak izango ditugu ikastetxeak behar dituen ekipo-kopuruari buruz.

Halaber, datu horiei esker jakingo dugu zenbat behar diren gaztelaniaz eta zenbat euskaraz, talde bakoitzaren hezkuntza ereduaren arabera.

Prozedura hori automatikoa izango da, beraz ez da beharrezkoa ikastetxeak jakinarazpenik egitea; eta urriaren erdialdera, gutxi gora behera, posta elektronikoz komunikatuko da eta adieraziko da eman edo jaso beharreko ekipo-kopurua, azken kopuruaren arabera.

Lehen Hezkuntzan bezala, irailaren 24tik aurrera egongo diren matrikula-aldaerak Ordezkaritzan jakinaraziko dira dagokion Ekipamendu zerbitzuan; eta ikasturtean zehar bitan banatuko dira ikasle berriek behar dituzten ekipoak.

#### **OHARRAK:**

1. Miniordenagailu eramangarri bakoitzak bi kargatzaile, sagua eta garraio-poltsa ditu. Irailaren 10etik aurrera, ikastetxeetan banatzen hasi zen bigarren kargatzailea, sagua eta garraio-poltsa, hasieran ez baitziren eman. Emate hori amaitu egin da.
2. Ekipoak jaso behar badira, posta elektronikoz jakinaraziko da eta ikastetxe horietan prest utziko dira: bakoitzak bere jatorrizko kutxa eta kargatzailearekin eta, ondoan, kargatzaile gehigarria, sagua eta garraio-poltsa. Banatuko diren ekipoen zerrenda eta horien etiketa egingo da; halaber, dagokion zentroaren kodea eta izena adieraziko dira.
3. Ekipo gehigarriak jasoko dituzten ikastetxeei kutxa bat banatuko zaie, barruan miniordenagailu eramangarria, bi kargatzaile, sagua eta garraio-poltsa dituelarik.
4. Programa honen bidez ematen diren ekipoak Hezkuntza Sailaren jabetzakoak dira eta ikastetxeen artean banatzen dira, zain eta erabil ditzaten definitutako helburuaren arabera. Ekipoa ez dago ikasleari lotuta, beraz ikastetxez aldatzen bada, ez du ekipoa eramango. Ekipoa jatorrizko ikastetxean geratuko da eta helburuko zentroan beste bat jasoko du.